

BIZITZATIK BIZIRA

1

Nok ez dau maite bizitza?
Bere atzetik gabiltza;
guk ez daukagu ta zeinek dauka
azkenengo hitza?
Ederra, baina murrirtza,
ai, betikoa balitza!
Sortu gaituan Jainkoak dauka
eskuetan giltza.

2

Hara nun dan oinarria
Jainkoak Berak jarria:
Aita guztien Aita Bera da
bizi-iturria.
Badogu bizi barria
Jesukristok ekarria;
Beragan ase geinke bakarrik
gure egarria.

3

Heriotzaren iluna
danok larritzen gaituna,
hau barriona Jesusek guri
ekarri deuskuna:
Aitaren Seme kutuna
gugaitik hil dan Laguna,
Berak argitu deusku betiko
gaubako Eguna.

4

Larri garan orduetan
sartu bihotz-buruetan:
Gure ondoan dogula Jauna
mila moduetan.
Maite gaitula benetan,
geugaz dogula penetan;
geure burua itzi daigula
bere eskuetan.

5

Gurasoen gurasoa,
Aita maitale gozoa!
Jesusen bidez konpondu dozu
gure arazoa.
Luzatuz zure besoa,
sendotu seme gaixoa;
zeurea naz ta, Zeugan jarten dot
usteon osoa.

6

Heriotz, ez gainontzeko
ez da ezer gu galtzeko;
Aita Jainkoa, egin gaituzu
gu zure antzeko:
Munduan Zeu goratzeko
eta alkar maitatzeko;
gero zeruan danok batera
Zeugaz bizitzeko.

A. Martzel

